



3

TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRETERIAKO UDALA

Giza Baliabideak

Indargabetzea Erreterriako Udaleko funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioaren 95. eta 96. artikuluen aplikazioa, eta baita ere Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa 2020-2024.

Udalbatzarrak, 2022ko uztailaren 19ko ohiko batzarrean, besteak beste, honako akordioa hartu du:

«*Lehenengoa.* Indargabetzea Erreterriako Udaleko funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioaren 95. eta 96. artikuluen aplikazioa, eta baita ere Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa 2020-2024, erretiro aurreratuagatik primak, zeina aipatutako akordio arautzaileari erantsi baitzitzaion eranskin gisa (2021eko urtarrilaren 26ko Osoko Bilkuraren Akordioa).

Bigarrena. Akordio hau Erreterria Musikal Udal Patronatuari, Udal Kontu-hartzaitzari eta Langileen Batzordeari jakinaraztea.

Hirugarrena. Akordio honen argitarapena burutzea Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Erreterriako Udaleko Gardentasun Atarian.»

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsu jar dezakezu, edota egoki deritzozun beste edozein errekurtsu, dagokion Administrazio Auzietarako Auzitegian, bi hilabeteko epean, akordio hau azken aldiz Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz- zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren aurretik, berraztertzeke errekurtsua aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, akordio hau azken aldiz Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita.

Horrenbestez guztien ezagupenerako jakinarazten dut.

Erreterria, 2022ko uztailaren 21a.—Alazne Korta Zulaika, Antolaketa ordezkarria.
(4944)